

## Uztailaren 31n LOIOLAKO SAN IGNAZIO

### Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

### Sarrerako oharpena

Senideok, poz ederra gaur eskaintzen zaiguna: gure senide eta herritar Ignazio Loiolakoa santutasun argitan ikusten dugu. Festaburu eder honetan, beraz, badugu zer eskatua eta zer eskertua. Jaunak eman digun dohaina, egiazko eskakizun bihurtzen baitzaigu. Ignazio dohaina dugu, eta deia dugu. San Ignazioren fede berean bat egin dezagun eta egigun festa. Jaso dezagun festara Ignazio zaindaritzat aitortzen duen gure herriaren bihotza ere.

### Damu-otoitza

Loiolako Ignazio bezala, gu ere Jainkoaren aintza eta gizakientzat ona izatera deituak gaude. Aitor dezagun isilune eginez, Jainkoarengandik askotan urruntzen garela, eta onar dezagun beragandik datorkigula salbamena.

—Jesus Jauna, hilen arteko lehen-semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

## Otoitza

**Jainko Jauna,**  
**zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko**  
**eman zenion Elizari Loiolako Ignazio santua;**  
**iguzu,**  
**bera lagun eta ejenplu dugula, gudukaturik lur honetan,**  
**harekin parte izan dezagula zeruko zorionean.**  
**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,**  
**Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean**  
**Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa maitatzeak zoriona dakar. Harengandik urruntzeak, berriz, zorigaitza eta hondamendia. San Ignaziok hartu zuen bidea argia da: dena, egiten den guztia, beti Jaunaren aintzarako egitea. Guretzat ere jokalege ederra!

## Lehenengo irakurgaia (Dt 30, 15-20)

Deuteronomio liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaion herriari Moisesen ahoz: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur ematen dizkizudan aginduak: Jauna, zure Jainkoa, maitatuz, Haren bidetik ibiliz, eta Haren aginduak, erabakiak eta esanak betez, biziko zara eta ugarituko; eta bedeinkatuko zaitu Jaunak, zure Jainkoak, jabe izateko sartuko zaren lurraldean.

Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta zeure burua liluratzen uzten baduzu, jainko arrotzei belauna makurtzen badiezu eta zerbitzu egiten, gaurtik esaten dizut, nahita nahiez

hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordan igarota menperatzera zoazen lurraldean.

Zeru-lurrak deitzen ditut gaur testigu: bizia eta heriotza, bedeinkapena eta madarikapena jartzen dizkizuedala aurrean. Zuk eta zure ondorengoek bizi nahi baduzue, aukera ezazu bizia Jauna, zure Jaungoikoa, maitatuz, Haren esana adituz, eta Hari loturik; Bera baita zure bizia eta zure egunen luzagarria; eta biziko zara Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki, eta Jakobi emango ziela hitzeman zien lurraldean».

### Erantzun-salmoa (Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6)

Bai do - ha - tsu gau ta e - gun Jau - na -  
ren le - ge - a haus - nar - tzen du - e - na.

Bai dohatsu, gaiztoen asmoari jarraitzen ez zaiona, '  
hobendunen bidean ez dabilena,  
lotsagabeen batzarrean esertzen ez dena.

Ostera, Jaunaren legean atsegin duena,  
gau eta egun Haren legea hausnartzen duena. R/.

Ur ertzean aldaturiko zuhaitza bezala izango da,  
bere garaian ematen du fruitua;  
eta historik ihartzen ez zaio:  
zeregin guztietan ongi doakio. R/.



Ez horrela gaiztoak, ez horrela,  
 haizeak daraman lastoa bezala izango dira.  
 Zintzoen bidezain Jauna baitago,  
 gaiztoen bidea, berriz, hondamendirako. R/.

### Bigarren irakurgaia (1 Ko 10, 31–11, 1)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuelarik, egizue dena Jaungoikoaren aintzarako. Ez eman gaizpiderik, ez judutarrei, ez greziarrei, ez Jaungoikoaren Elizari.

Nik ere neure aldetik guztiei ematen diet atsegin, ez neure onari begira, haienari baizik, guztiak salba daitezzen. Izan zaitetze nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

### Aleluia (Mt 5, 12a)



Poztu zaitetze eta alaitu,  
 handia izango da eta zuen saria zeruetan. R/.

### Ebanjelioa (Lk 9, 18-26)

## Homiliarako argibideak

*Ignazio, Kristorena*

Loiolako gure santu bikainak, Ignazio santuak, badu mezu ederrik fededun ororentzat. Eta zer esanik ez, badu mezu eder eta erakargarririk euskal fededunontzat, gure eguneroko fede-ahalegina Euskal Herriko gizartean bizi dugunontzat. Loiolako santuaren aurrean, dei berezi eta gordina gertatzen da Jainkoaren gaurko Hitza. Gure fede-bizitzarako kriterio edo irizpide argitsuak aurki ditzakegu bietan, Jainkoaren hitzean eta Ignazioren ispilu garbian.

Lehenengo irizpidea, Jesusen pertsonari atxikitzea. Fede-aitorpenak, segizioa eskatzen du. "Ni nor naizela diozue?". Jesusen misterioa bere osoan onartzea da eman behar dugun erantzun betea. Horrek, noski, ukazio zenbait badu berekin. Kristau-biziera ez da ukaziozkoa, baina Jesusekin bat egiteak, gauza batzuk besarkatu eta besteei uko egitera zaramatza. Edukitzea, azaltzea, pilatzea, agintea... ez dira irizpide baliozkoak fede-bizitzarako. Jarraipenaren benetakotasunak ematen du fedearen kalitatea.

Bigarren irizpidea, fedearen arazoa, apustu erabakigarria dela jakitea. Ez gabiltza aukerako gauzekin, nahi baduzu bai, nahi ez baduzu ez. "Bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut aurrean". Segizioaren zintzotasunetik dago zintzilik zorionaren gora-behera. Zer da aurrena, fedea ala gizatasuna?, galdetu ohi dugu. Zenbaitek biak elkarren kontra jarri nahi lituzke. Sasi-galdera da hori. Fededunarentzat, dagoeneko, fedea bera bihurtu da gizatasunaren neurri. "Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bizitzen ez badaki?". Bizitzea da kontua, gizatasunari buelo ederra ematea, pertsona bezala neurri handietara haztea.

Beraz, eta hirugarren irizpide nagusia da hau, Jaunaren aukera egitea da fededunaren sustraia. "Nahiz jan, nahiz edan, nahiz

edozer egin...". Aukera hau ez da teoriarik edo ideia-mailan bakarrik egiten, jakina! Jan, edan... bizitzaren eguneroko maila horretan oretzen da fedearen aukera. Bestela, fedea gain-egitura alferrikakoa bihurtuko litzaiguke. Eta fedearen onena, egiazko aukera bizia egiten denean bizi eta gozaten da. Fedearen edertasun guztia zer den, egunero fedearen prozesua bizi duenak daki. Kontua ez baita ideia argi eta handiak edukitzea. Kontua da, egunero fedearen bideak ikasi eta pausoka-pausoka bideratzea.

Loiolako Ignazio, gure senide fededuna, irizpide hauen oihulari bikaina dugu. Jesu Kristoren eraginak harrapatu zuenez geroztik, fedearen apustua egin zuen. Jesusi erabat atxiki eta harengan aurkitu zuen bere zorion betea. Eta horretara bildu ziren eta horretatik abiatu San Ignazioren pauso guztiak. Horra euskal gizona!, esan genezake beldurrik gabe. Eta, alderdi horretatik, deialdi larri eta nabarmena egiten dio santu honek gure gizarteari eta gure fededun elkarteari. Santutasunaren bideak, gizatasun-bide paregabeak gertatzen dira benetan. Bai, jauna!

*Gure fedea bizitzaren muin?*

Utz iezadazu galdetzen, atrebentzia eta guzti: gure fedea zer nolako irizpideak ditu? Gizarte eduki-zale, izan-zale, aginte-zale honen erdian, Jesusekiko atxikimendua eta harremana erakusten al du gure fedea? Edo ez ote gara, fededun izan ustez, gizartearen jokaera horietan beretan erori? Gure fedea bestelako biziera hots egin eta aldarrikatu behar ez badu gaur egun, bere horretan antzutua geldituko zaigu. Gure fedea erabateko aukera bezala bizi ote dugu? Ez al zaigu fedea piska bat 'gaineke' estalki bihurtu? Ilandeko jantzia alegia, baina eguneroko bizitza eta sufrimenduarekin zerikusirik ez daukana? Ona da, baina ez hain beharrezkoa... Fedea ez ote dugu planteatu behar zorionaren oinarritzko aukera bezala? Bizia eta zoriona ari garela jokatzeko, alegia! Fedea ote dugu gizatasunaren neurri eta oinarri?!

Eta horretatik gure fedea ebanjelizatze-eginahalean sutu beharra daukagu. Egiten duguna egin, baina fedearen argiz. Fededunekin edo fedegabekoeekin, adiskide edo etsaiekin, aukera handietan edo eguneroko txikietan... beti fedearen argi apal baina dirdaitsu horren mailan kokaturik. Handikeriak erantzi eta zerbitzuaren apaltasunez jantzi gure fedea.

Loiolako Santua gure bokazioarentzat deialdi berezia dugu. Zer egin dugu gure fedearekin!? Loiolakoa galdera eta babes dugu. Jaunak harengan egin dituen harrigarriak gutako edonorengan errepika ditzake. Ditzake, eta errepikatu nahi ditu. Fedearen positurria ez da agortu. Aukera sakona egiteko behar hainbat grina geratzen al zaio gure fedeari? Gure arteko gizon bat santu egina ikusteak, gure fede-bideak akuilatu eta sustatu behar ditu. Gure gizarteak asko eskatzen dio gure fede-bizitzari.

Galdera hauei erantzun zuzena ematen dion biziera bizi nahi badugu, oinarrizko puntu bat ez dugu ahaztu behar, otoitzarena. Otoitzean Jainkoarekiko harremana berritu beharra daukagu, benetako kristautasun-maila ederra ematekotan. Baita giza maila jatorra burutzekotan ere. Jainkoarekiko harremana du iturburu eta oinarri kristauak, Loiolako Santuak esaten digun bezala, Jainkoa iturburu eta oinarri. Eta otoitzak eramaten gaitu egiazko iturburu eta egiazko oinarria.

*Eukaristia, bizitzarako iturri*

Eukaristia ospatzen ari gara. Santutasunaren iturrian gaude. Fedearen mahaian. Hemen berriztzen eta gaztetzen zaizkigu fedearen egiazko irizpide jatorrak. Hemen atxikitzen zaio gure bihotza Jaunari. Gero bizitza guztia atxikimendu horren dirdai izan dadin. Halaxe izan dadila!

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: eska dezagun Jaunaren errukia eta egiogun otoitz, Loiolako san Ignazioren antzera Kristoren jarraitzaile leial izan gaitezen:

- Gipuzkoako gure Eliza, san Ignazioren antzera, Kristoren ezagutzan haz dadin eta egintza onen fruituak eskain diezazkion gizarteari. Eska diezaiogun Jaunari.
- San Ignazioren antzera barne bizitza zainduz bizi direnei, Jaunak bihotz barneko bakea eta pozik bizitzeko gogoia eman diezazkien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Behartsuei eta zapalduen Ebanjelioa eskainiz bizi diren Jesusen Lagundiko kideen alde, izan dezatela egiatzko itxaropena, zailtasunen erdian ere piztueraren testigu izateko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jainkoaren aintza bilatzen gero eta gehiago saia gaitezen, horretarako Jesusen erako zerbitzuzko bizitza eginez. Eska diezaiogun Jaunari.

Jauna, Jainko ahalguztiduna, Loiolako San Ignazio aukeratu zenuen, Zure bila ibiltzeko eta Zure aintza aurkitzeko gogoia piztuarazi zezan Elizan; entzun gure otoitzak eta emaguzu gaur oroitzen dugun maisuaren irakatsiei eta ejenpluei jarraitzeko indarra. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jauna, Ignazio santuaren egun honetan  
Zuri eskerrak emateko eskaini dizugun gorespen opariak  
eraman gaitzala  
betierean zure aintza neurrigabea gorestera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**